



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Ustiapenaren balantzea. 2012. urtea

Enkarterrietako Museoko bisitak %12 hazi dira

- **2012an, 12.470 bisitari egon ziran. Bizkaiko Batzar Nagusien menpeko Enkarterriko kultur zentroaren ia hogei urteetan, iazkoak izan dira emoitzarik onenetakoak.**

Abellanedan, 2013ko urtarrilaren 23an.

Urterik urte, Abellanedako (Sopuerta) Enkarterrietako Museoa bisitetako interesa handiagoa da bizkaitarren artean. Publikoari jagokonez, Bizkaiko Batzar Nagusien jabetzakoa dan kultur zentroak bere historiako emoitzarik onenetakoa euki eban iaz, 1994an ateak zabaldu ebazanetik. Abellanedako Juntetxean kokatutako museoak 12.470 lagunen bisitea euki eban 2012an; horreetatik, 8.699 taldeka joan ziran, eta 3.771 banaka. Kopuru hori %12ko hazkundera da, aurreko ekitaldiagaz konparauta.

2012an, Enkarterrietako Museoak arrakastaz uztartzen segidu dau erakusketa iraunkorra eta aldi baterako beste erakusketa batzuk, Enkarterriko kulturaren eta historiaren gaineko ikerketa-lan handi baten emoitza lez. Aldi berean, azken urteotako etenbako hazkundera ekarri daben ohiko jardueraz gainera, beste jarduera batzuk be egin dira. 2010ean, 10.657 bisitari egon ziran, eta, hurrengo urtean, 11.140. Iaz, museoak krisiari aurre egiten jakin eban, 1.330 bezero gehiago erakarrita. Taldekako bisitarien jatorriari jagokonez, %95 Bizkaikoak dira, eta gainerakoak Gipuzkoa, Araba eta beste probintzia mugakide batzuetatik datoz.

Museoaren etenbako hazkundera ahalbidetu dauen faktoreetako bat aldi baterako erakusketen kalidadea eta bisita gidatuen programa paraleloa da. Abellanedako zentroak ibilbide luzeko aldi baterako bi erakusketa eskaini ebazan. Urteko lehenengo hiruhilekoan, zentroa “etxe merkeak” deritxenen zabalkundean oinarritu zan; XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako arkitektura berezi horrek eraikin txikiz osotutako auzoz bete eban Enkarterri, fabriketako beharginei zuzenduta. Etxe horreen adibide asko dagoz eskualdean.

Bigarren erakusketea, urtearen erdialdean zabaldutakoa, Ismael Fidalgoren gaineko atzera begirakoa da. Fidalgo Enkarterriko margolari espresionistea zan, bai eta XX. mendearen bigarren erdialdeko euskal artistarik esanguratsuenetakoa be. Enkarterrietako Museoak omenaldia egin eutsan “meatzeetako margolaria” deitutakoari, Fidalgo Trapagaranen hil eta bi urte geroago. Horretarako, atzera begirako erakusketea egin zan; bertan, Sopuertako artistearen 100 koadro baino gehiago eta paperean egindako hogeta hamar lan inguru bildu ziran (marrazkiak, gutun apainduak, dokumentazioa...), eta, gainera, bertan ekoitzitako bi dokumental be eskaini ziran, margolariaren bizitza eta obrea aztertzeke. Haren lagun, maisu eta garaikideen (Oteiza, Ibarrola, Menchu Gal, García Ergüin...) gaineko erakusketa txiki batek osotzen dau omenaldia, Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan. Bi erakusketak zezeilaren 3ra arte ikusi leitekez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Iaz, Museoak, Sopuertako Udalgaz batera, “Francisco de Garay: el primer gran explorador Vasco, de las Encartaciones a América” liburua editatu eban; gizon berezi eta sano boteretsu baten bizitzaren gaineko errepaso bat, Goio Bañales historialariak idatzitakoa. Argitalpen honek Amerikaren konkistaren ostean lurra eremurik handienetako bat gobernau eban euskaldun baten gorabeherak errepasetan dauz. Haren agintepeko lurra Texasen hasi eta ia Erdialdeko Amerikaraino joiazan.

Ondarea berreskuratzeko esparruan egindako lanaren barruan, Museoak Enkarterriko ondarea osotzen dabena obra batzuk zaharbarritzen segidu dau. Atal honetan, aitatu behar da Abellanedako Juntetxeko armaria, XVI. mendekoa, konpondu egin zala.

Era berean, Museoko Kultur Ekintza eta Zabalkunderako Zerbitzuak hainbat jarduerak pedagogiko antolatu dauz, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzenduta. Tailer horreen bitartez, bisitaririk gazteenei modu atsegin, praktiko eta ludikoan hurreratzen jakez Enkarterriko historia eta kultura. Horri jakokonez, Historiaurreari eta Erdi Aroari buruzko tailerrak nabarmendu ziran, bai eta El Pobaleko burdinolagaz batera egindako jarduerak edo ekitaldi aretoan egindako emonaldi txikiak be; azken horreen artean, ipuin-kontalariak eta magia-ikuskizunak egon ziran, oporraldiak aprobetxautu. Gabonetan, tailerrak familia osoarentzat zabaldu ziran lehenengoz.

Inbersinoen atalean, kultur ondare barria eskuratzeko inbersinoaz gainera, Enkarterrietako Museoak, 2012an, sail didaktikoak eta erakusketa-sailak barritu dauz; modu horretan, formatu handiagoko aldi baterako erakusketak ipini ahal izango dira martxan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Balance de explotación. Año 2012

Las visitas al Museo de Las Encartaciones crecen un 12%

- **La cifra de visitantes en 2012 alcanzó las 12.470 personas. Representa uno de los mejores resultados en las casi dos décadas de vida del centro cultural encartado de las Juntas Generales de Bizkaia.**

Bilbao, a 23 de enero de 2013.

Año tras año, el interés por visitar el Museo de Las Encartaciones de Abellaneda (Sopuerta) crece entre los vizcaínos y vizcaínas. El centro cultural perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia obtuvo el año pasado uno de los mejores resultados de público de su historia desde que abriera sus puertas allá por el año 1994. El museo situado en la Casa de Juntas de Abellaneda recibió la visita de 12.470 personas en 2012, de las que 8.699 llegaron en grupo y 3.771 a título individual, lo que supone un aumento del 12% respecto al ejercicio anterior.

Durante el año 2012, el Museo de Las Encartaciones ha seguido combinando con éxito su amplia exposición permanente con otras muestras temporales fruto de una intensa labor de investigación sobre la cultura y la historia de Las Encartaciones. Al mismo tiempo, se han incorporado nuevas actividades a las habituales que han impulsado un crecimiento constante durante los últimos años. Si en el año 2010 la cifra de visitantes se cerró en 10.657 personas, al año siguiente alcanzó las 11.140. Durante el año pasado, el museo ha sabido capear la crisis con la captación de 1.330 usuarios más. En cuanto a la procedencia de los visitantes en grupo, el 95% vienen de Bizkaia y el resto se reparte entre Gipuzkoa, Araba y otras provincias limítrofes.

Uno de los factores que ha impulsado el crecimiento continuo del museo es la calidad de sus exposiciones temporales y el programa paralelo de visitas guiadas. El centro de Abellaneda ofreció dos exposiciones temporales de largo recorrido. En el primer trimestre del año, el centro se volcó en la difusión de las denominadas “casas baratas”, una arquitectura singular de finales del siglo XIX y principios del XX que llenó Las Encartaciones de barrios de edificios bajos destinados a los obreros de las fábricas y de las cuales se conservan muchos ejemplos en la comarca.

La segunda exposición, abierta a mediados de año, es una retrospectiva sobre Ismael Fidalgo. Fue el pintor expresionista de Las Encartaciones y uno de los artistas vascos más relevantes de la segunda mitad del siglo XX. El Museo de Las Encartaciones homenajeó al denominado “pintor de las minas”, dos años después de su muerte en Trapagaran, con una exposición retrospectiva que reúne más de 100 cuadros del artista de Sopuerta y una treintena de obras en papel (dibujos, cartas decoradas, documentación...), además de dos documentales de producción propia que recorren su vida y su obra. Una pequeña exposición de amigos, maestros y coetáneos suyos (Oteiza, Ibarrola, Menchu Gal, García Ergüin...) en la sede bilbaína de Juntas completa este homenaje. Las dos exposiciones pueden ser visitadas todavía. Estarán abiertas hasta el 3 de febrero.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Durante el pasado año, el Museo, junto con el Ayuntamiento de Sopuerta, editó el libro “Francisco de Garay: el primer gran explorador Vasco, de las Encartaciones a América”, un repaso a la vida de un hombre singular y muy poderoso, elaborado por el historiador Goio Bañales. Esta publicación repasa los avatares de un vasco que gobernó en una de las mayores extensiones de tierra tras la conquista de América. Sus dominios iban desde Texas hasta casi Centroamérica.

Dentro de su labor en el campo de la recuperación de patrimonio, el Museo ha seguido restaurando diversas obras que forman parte del patrimonio de Las Encartaciones. En este capítulo, merece destacar el arreglo del escudo de armas de la Casa de Juntas de Abellaneda que data del siglo XVI.

Asimismo, el Servicio de Difusión y Acción Cultural del Museo ha organizado diferentes actividades pedagógicas dirigidas al alumnado de Educación Primaria y de la E.S.O. Son talleres que sirven para acercar al visitante más joven, la historia y la cultura de Las Encartaciones de una forma amena, práctica y lúdica. En este sentido, destacaron los talleres de Prehistoria y Edad Media, las actividades conjuntas con la ferrería de El Pobal o la puesta en escena de pequeñas representaciones en el salón de actos como los “cuentacuentos” o actuaciones de magia, aprovechando periodos vacacionales. En Navidad, los talleres se abrieron por primera vez al disfrute de las familias.

En el capítulo de las inversiones, además de las destinadas a adquirir nuevo patrimonio cultural, el Museo de Las Encartaciones ha completado durante 2012 una renovación de sus áreas didácticas y expositivas que va a permitir poner en marcha exposiciones temporales de mayor formato.